BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

747

AGINDUA, 2013ko abenduaren 16koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, «Fundación Francisco de Cerio» Fundazioaren azkentzea eta likidazioa onartu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko egindako eskabidearen espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2013ko otsailaren 14an, «Fundación Francisco de Cerio» delakoaren azkentzea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskabidea jaso zen, Herri Administrazio eta Justizia Sailean. Espedientean jasotako dokumentazioa erantsi zitzaion eskabide-idazkiari.

Bigarrena.– Geroztik, 2013ko abenduaren 10ean, lehenago aurkeztutakoaren dokumentazio osagarria jaso zen.

Hirugarrena.– Fundazioa Antequeran eratu zen, Erregearen Francisco Alcántara eskribauaren aurrean egiletsitako eskrituraren bidez, 1650eko martxoaren 14an.

1913ko abuztuaren 29ko Errege Agindu bidez Ongintza Partikular izaerako moduan sailkatu zen Fundazioa.

Eraketa-eskrituran zehazten denez, fundatzaileak ezartzen zuen honako hauek osatuko zutela Patronatua: Cerio izeneko lekuko elizako benefiziodun zaharrenak eta apaizak eta Gasteiz hiriko Kabildoak aukeratutako bertako bi auzotar.

Historiako gorabeherak direla-eta jada ez da existitzen benefiodunaren figura, XIX. mendearen erdialdetik aitzina gutxienez; eta ofizialki Vatikanoko II. kontzilioak abolitu zuen.

Bestalde, gaur egun ere ez da existitzen Gasteizko Kabildoaren figura, eta garai baten halakoak egiten zituen izendapenak egun Gasteizko gotzainak egiten ditu.

Hortaz, 2013ko apirilaren 12an, bi patroiak izendatu zituen gotzainak Cerio auzotarren artetik; eta horiek karguak onartu ostean, Cerioko parrokoarekin batera Fundazioaren Patronatua osatu zuten.

Laugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek aztertu dute espedientea, eta ondoren, ebazpen-proposamena egin dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari dagokio fundazioaren estatutuak aldatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua

onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan; Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuan; eta Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzekoan.

Bigarrena.– Aurkeztutako dokumentazioak bete egiten du honako xedapen hauetan ezarritakoa: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretua, eta oro har aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Hirugarrena.– Legitimatuta dagoen pertsona batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta, beraz, bete dira honako xedapen hauetan ezarritako betekizunak: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen 33. eta 34. artikuluetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 35. artikuluan, eta, ondarea azkentzeari eta likidatzeari dagokionez, fundazioaren estatutuetan jasotakoak.

Laugarrena.– Fundazioen Babeslaritzak onartzeko eta Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agirietan ikusten denez, batetik, Fundazioaren Patronatuak 2013ko urtarrilaren 29an fundazioa azkentzeko hartutako Ebazpena (2013-05-28ko Batzarrean berretsia) baliozkoa da, estatutuen eta Euskal Autonomia Erkidegoan fundazioei buruz indarrean dauden arabera, eta, bestetik, azkentze horretarako zioa egiazki bada; zio hori Kode Zibileko 39. artikuluan aurreikusitakoa da, eta erakundearen funtzionamendua eteteari buruzkoa da; izan ere, dituen funtsak direla-eta ezinezko zaio helburuak gauzatzea.

Patronatuak fundazioa azkentzeko hartutako erabakiaren ondorioz, Gasteizko Elizbarrutiko Caritaseri entregatuko zaizkio fundazioaren ondare-gerakina osatzen duten ondasun guztiak.

Ondarearen destino hori bat dator Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 12/1994 Legearen 35.2 artikuluarekin.

2013ko maiatzaren 31an, Elizbarrutiko Caritaseko zuzendariak, Santos Gil Martínezek, sinatutako hartu-agiriaren bidez zera egiaztatu da: likidazio-gerakina (409,69 euro) erakunde horri entregatu zaioa, behin 2013ko maiatzaren 31n egindako batzarrean Patronatuak likidazio-eragiketak onartutakoan.

Bosgarrena.– 100/2007 Dekretuaren 36. artikuluak ezartzen duenez, iraungitzeko erabakiak edo fundazioaren ohiko jarduerak amaitutzat jotzen dituen ebazpen judizialak, hala gertatuz gero, hasiera emango diete likidatzeko-eragiketei.

Artikulu horretan bertan adierazten denez, fundazioko gobernu-organoak egingo du azkendutako fundazioaren likidazioa, betiere Babeslaritzaren kontrolpean. Horretarako, fundazioaren gobernu-organoak aktibo- edo likidazio-eragiketa bakoitzaren berri emango dio Babeslaritzari.

100/2007 Dekretuko 36.6 artikuluak ezartzen du zein elementu izan behar dituen Fundazioa likidatzeko eskritura publikoak.

Ikusirik aipatutako arauak eta aplikatzekoak diren gainerako arauak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Gasteizko (Araba) «Fundación Francisco de Cerio» fundazioa azkentzeko eta fundazioa likidatzearen ondoriozko kitapena destinatzeko, Fundazioko patronatuak 2013ko urtarrilaren 29an bilerak hartutako Erabakia berrestea. Erabaki hori 2013ko maiatzaren 28an formalizatu zen, Gasteizko notario Enrique Arana Cañedo-Argüellesen aurrean egiletsitako eskritura publikoaren bidez (protokolo-zenbakia: 1968).

Bigarrena.– Fundazioa azkentzeko erabaki hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agintzea.

Hirugarrena.– «Fundación Francisco de Cerio» Fundazioaren likidazio-prozesua amaitutzat jotzea eta beraren erregistro-orria ezeztatzeko agintzea.

Laugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta Fundazioari bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 16a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.